

Kaixo, lagun hori.

Mezu honen bidez, nire web gune berria ezagutzera gonbidatzen zaitut.

Irakurgailuak, e-bookak, e.a. azken boladan ahoz aho ibiltzen direla ikusita, bai eta beste arrazoi pertsonal batzuek bultzatuta ere, betiko “Marjinalia Bilduma” doan jaisteko aukera kendu eta beste urrats bat eman nahi izan dut autore/editore digitalaren bidean –gaurko teknologiak eskaintzen dizkigun aukerak kontuan hartuta beti ere, ikuspegi horretatik ekin baitiot web gune berria antolatzeari.



Web gunetik aurkezpen gisa eskegita dagoen pdf batean Euskal Idazleen Elkarteari egiten diodan proposamena zuri ere helarazi nahian, esango dizut –laburbildurik– eskaera edo proposamen hori zertan den: katalogo digital bat martxan jartzeko eskaera da eta, esan bezala, Euskal Idazleen Elkarteari zuzendu diot. Ekimena gauzatzekotan, katalogoa elkarteko kideen liburu digitalekin osatuko litzateke, eta noski, katalogo horretan parte hartzea borondatezkoa izango genuke.

Xedea liburuak bitartekaririk gabe saltzea da. Eta alde horretatik, Euskal Idazleen Elkartearen ardura izango litzateke: oinarritzko diseinu digitalak finkatu, zuzentzaileak diru-baldintza berezietan eskaini, liburu-formatuak (pdf...) erabaki eta salmentak (Interneten bidez) kudeatzea. Aurrerago ikusiko zen portzentajeak idazleen eta elkartearen artean nola banatu. Dena den, portzentajerik handiena idazlearentzat izan behar luke, nola ez.

Nire ustez ekimena berez interesgarria da, behintzat produktu bat ekoizten duten guztien kezka nagusia hori izaten baita: bitartekariak ezabatzea eta, hori lortzen den neurrian, diru-irabazi handiagoak (geure lanaren fruitu direnak) lortzea. Gainera, ekimena gauzatu gero, ziur nago idazleen arteko harremanak hobeak, hurbilagoak eta lasaiagoak izango liratekeela. Azken finean, halako salgune batetik idazle guztiok abiatuko baikinateke baldintza berberetan –gaur egun ohiko argitaletxeetan gertatzen ez den bezala, hain zuzen.

Nolanahi ere, nire web gune berria aurkeztea beste asmorik ez daukat une honetan, eta beraz, gunea ezagutzera gonbidatzen zaitut. Azken batean, idazle bakarra horrelako zerbait martxan jartzeko gai izan bada, pentsa euskal idazleen elkarte bat zer ez zen izango antolatzeko gai!

Mila esker denbora pixka bat hartzeagatik lerro hauek irakurtzeko.

Ondo izan.